



DANI BLANCO

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA ♦

## Betiereko kartzela

ESTATU ESKLABISTAK baino lehen, tribuak oinarrizko egiturak zirenean, liskarrak euren artean konpontzen zituzten. Egindakoaren ondorioen neurririk ez zegoenez, ordainketa ohitura desberdinak eraiki ziren. Geroago, botereak zentralizatu zirenean, arautzeari ekin zioten, menpekoen beldurra eta kontrol soziala irabazte aldera, bide batez.

Hammurabi-ren Kodea da ezagutzen den legedi zaharrena. Oinarria Talioaren legea da, hau da, begia begi truk. Araudi honen izaera bortitza ulergarria da, botere absolutu zapaltzaileen logikan, bai eskubiderik gabeko, eta betebeharez betetako, esklaboen jendarreetan.

Lehen liberalek, ilustrazioan, gizabanakoaren askatasuna eta berdintasuna aldarrikatu zutenean, Talioaren legearen eraginkortasun eskasaz ere ohartu ziren: ez zuen balio delituak gutxitzeko, sufrimendua areagotzen zuen, eta boterearen gehiegikeriak ezkutarazten.

Hiritarren eskubideak onartu ziren, eta estatuak, botere zapaltzailea urrituz, haiek babestu beharra izan zuen. Kontratu soziala apurtzen zutenei, heriotza-zigorra edo bizi arteko kartzela ezartzea gehiegizkoa zela pentsatu zen, penatuarentzat krudelkeria, eta jendarterearentzat jasangaitza. Egindakoa larria izanik ere, hiritar orok birgizarteratzeko eskubidea izan behar zuen, estatuaren ardurapean.

Nik uste, azken aldian, atzera egiten ari garela, eta nabarmen (ez naiz *Parot doktrinari* buruz ari zehazki, disidentzia politikoarena larriagoa baita). Oro har, kartzelak preso izarrazteko eta menperatzeko dira; lege aldaketak, zigorrak gogortzeko; eta lehen 30 urte bazen azken muga, gero 40 ezarri zuten. Orain, bizi arteko kartzela zigorra ezarri nahi dute. Aztoratuenak (ikusit ditut Madrilen oihuka), berriz ere, heriotza-zigorra eskatzen.

Estatua botere absolutua berreskuratzen ari da, eta zenbait jende alde dago. Hiritartasun zentzua galtzen goaz, eta menpeko zorionsu bihurtzen ari gara, aldamenekoaren salatzaile, auzokoaren jazarle, Anaia Handiaren begiradapean. Talionaren legea berriro ezartzeko, biktimen mendeku gogoia erabiltzen dute, komunikabideetan intelektual morroiek alarma soziala sortzen duten artean.

Ni, neu, ez nago ados. Gizabanakoarentzat 20 urtetik gora kartzelan egotea izugarria da, benetan, gizatasunaren aurkakoa, eta 30etik gorakoa mendeku-zaletasunetik bakarrik ulertu ahal da, hots, ez da eraginkorra, eta sufrimendua areagotzen du.

Baina estatua, guztiona bada, ezin da mendekuaren aldekoa izan, eskubideen aldekoa baizik. Ilustratuek asmatu zuten ipuin sinestezin hori. Eta guk sinetsi. ■



*Estatua botere absolutua berreskuratzen ari da, eta zenbait jende alde dago*

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

## Barkaezinak

AUTOBUSEAN ahoak eman ahal ari dira, kamera aurrean direla eta ibiltariak interesatzen dituztela ustez: zerga sobera ordaintzen da, gobernu sozialistak lumatzen gaitu, gerra on batek bederen arazoak konponduko lituzke, eskuin muturarentzat bozkatuko dugu beste aukerarik ezean, gazte alfer eta kanpotar mukizu horiekin larderiatsua datekeelako, ezkerrekoa naiz alta... Burua altxatu dut ikusteko nork zikintzen didan Joan Margariten poemak katalanez irakurtzeko premiazkoa dudan isiltasuna: "*Hem perdut poc pero ho bem perdut to?*".

Nabaritzen dira jendeak barka ezinkeria obratzearen bezperan elkarren berotzen.

Balentriaz. FN bozkatuko dute arraiki, atzo Etxarrin, Ainhoan eta Ezterenzubin bezala, konplexurik gabe, txirotasuna, ingurune sozial sarraskitua eta larru koloreagatik bazterketa pairatzea zer den ez dakiten laborari eta langile plazentek, Marine blonda eta bulartsua delako, zurien, jabeen eta kristauen heterozentrisimo neoliberalaren ikurra harroki daramalako.

Nola ahantzi antzeko gorroto diskurtsoek zilegitu zutela Auschwitz? Ondorioak jakinez, tematzen baldin bagara, barkaezinak gara. ■

